

M17

GREBA

OROKORRA



GUTXIENeko

SOLDATA

HEMEN ERABAKI!

LGS Soldatak hobetu
1.500€ aberastasuna
banatzeko

Ziurgabetasun garaiak bizi ditugu. 2008ko krisialdi garaitik hona, aberastasuna gero eta modu bidegabeagoan banatzen da. Orduan langile klaseak estutu behar izan genuen gerrikoa. Ondorengo hamarkadetan, krisiak biderkatu egin dira: ekologikoa, zaintzarena, soziala, ekonomikoa eta politikoa. Gerra hotsak indartzen ari dira, eskuin muturra oldartuta ageri zaigu, etxebizitza eta oinarritzko produktuen prezioen gorakada etengabeek prekariatu eta pobretzen gaituzte.

Bizitza garestitu da, baina soldatak ez dira neurri berean igo. Ondorioz, langileok erosahalmena galdu dugu, eta hori asko nabari da gure herri eta auzoetan, soldata kaskarrak izateak mugatu egiten baitu auzokide askoren bizitza soziala. 1500€ko gutxieneko soldatak egoera hobetzen lagunduko liguke, herri kohesionatuagoa eta biziagoa sortuz.

Ez dira soldatak bakarrik erasotzen, tokiko merkataritza eta ostalaritza establezimenduak ere kolpatzen ari dira, esaterako, oinarritzko horniduren edo lokalen alokairuen garestituz. Era berean, kate handiei eta multinazionaliei alfonbra gorria jartzen zaie, autonomo txikiek gerrikoa estutzen jarraitzen duten bitartean.

Aberastasunaren birbanaketa justuagoren aldeko greba da martxoaren 17koa, ezin dutelako beti betikoek irabazi. Euskal Herriko errealitatera egokitutako gutxieneko soldata behar dugu langileok, inork ez duelako nahi gogor lan egin, eta bizitzaren garestitzeari aurre egi-teko aski ez izan. Ez dugulako nahi inor bazterrean geratzea, herrian bizitza egin ezinik.

Gutxieneko soldata hobetzea posible da: Confebask eta CEN patronalei eskatzen diegu lan-bidearteko akordio bat 1.500 euroko gutxieneko soldata ezartzea ahalbidetuko duena. Aldi berean, gutxieneko soldata propioa hemen erabakitzeko eskubide politikoa aldarrikatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da ekimen politikoak abiatzea Iruñeko eta Gasteizko Parlamentuetan, baita Diputatuen Kongresuan ere, Langileen Estatutuaren 27. artikulua aldatzeko eta lurralde bakoitzak bere gutxieneko soldata propioa ezarri ahal izan dezan.

Martxoaren 17an greba orokorra egingo dugu gutxieneko soldata hemen erabakitzeko. Euskal Herrian denontzako bizi baldintza duinak eraikitzeko bidean aldarrikapen garrantzitsua delako. Zuk ere pertsiana jaitsi, "itxiko dut" kartela jarri eta langileokin batera Greba Orokorra egitera deitzen zaitugu, herri eta auzo bizitzari bultzada berri bat eman asmoz.

Martxoak 17, Greba Orokorra!

M17

GREBA

OROKORRA



GUTXIENeko

SOLDATA

HEMEN ERABAKI!

SMI

1.500€

Mejorar salarios
para repartir
la riqueza

Vivimos tiempos de incertidumbre. Desde la crisis de 2008, el reparto de la riqueza se ha vuelto cada vez más injusta. Entonces, la clase obrera tuvimos que apretarnos el cinturón. En las décadas posteriores, las crisis se han multiplicado: ecológica, de cuidados, social, económica y política. Los tambores de guerra se intensifican, la extrema derecha se muestra impetuosa, las continuas alzas de precios de viviendas y productos básicos nos precarizan y empobrecen.

La vida se ha encarecido, pero los salarios no han aumentado en la misma medida. Como consecuencia, las personas trabajadoras hemos perdido poder adquisitivo, algo que se nota claramente en nuestros pueblos y barrios, ya que los salarios actuales limitan la vida social de muchos vecinos y vecinas. Un salario mínimo de 1500 euros nos ayudaría a mejorar esta situación, construyendo una comunidad más viva y cohesionada.

No solo se están atacando los salarios, el comercio local y los establecimientos hosteleros también se están viendo duramente golpeados, por ejemplo, a través del encarecimiento de los suministros básicos o de los alquileres de los locales. O cuando a las grandes cadenas y multinacionales se les despliega la alfombra roja, mientras las y los pequeños autónomos siguen apretándose el cinturón.

La del 17 de marzo es una huelga a favor de una redistribución más justa de la riqueza, porque no puede ser que siempre ganen los mismos. Las y los trabajadores necesitamos un salario mínimo adaptado a la realidad de Euskal Herria, porque nadie quiere trabajar duro y que no sea suficiente para hacer frente al encarecimiento de la vida. Porque no queremos que nadie se quede al margen, sin poder hacer vida social en su propio pueblo.

Mejorar el salario mínimo es posible: exigimos a las patronales Confebask y CEN un acuerdo interprofesional para implantar el salario mínimo de 1.500 euros. Paralelamente, reivindicamos el derecho político a decidir aquí el SMI, para lo que deben tomarse las iniciativas políticas necesarias en los Parlamentos de Iruñea y Gasteiz, así como en el Congreso de los Diputados, para modificar el artículo 27 del Estatuto de los Trabajadores, y que cada territorio pueda fijar un SMI propio.

El 17 de marzo haremos huelga general para decidir aquí el salario mínimo. Porque es una reivindicación importante en el camino de construir unas condiciones de vida dignas para todos y todas en Euskal Herria. Tú también puedes bajar la persiana, poner el cartel de “cerrado” y sumarte a la Huelga General.

¡17 de marzo, Huelga General!